243 zkia

txi kitto!

2026ko azaroa



IKASLE GUZTIAK SUPER-HEROIAK BAZINATE?

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN BERRIKETAN 4

IKASTETXEETAKO BERRIAK 6

BANAKIXAN BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI BITXIKERIAK 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16

eta kitto!
euskara elkartea

Argitaratzailea
"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartea.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Naiara Esnaola

Erredakzioa
Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Diseinua
Irune Jaio

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

- Nola esaten da afrikarrez buruko miña?
- Ganbia zunba-zunba.

-Zein da gehien izutzen duen landarea??
- BanBU!!

- Nor da Txinako atletarik azkarrena?
- Txiuuuuuuuuuuuu



- Zer egiten du arratoi batek metraileta batekin? - Ratatatatatata!!!

- Ama, ba al dakizu zergatik harakinek beti bikain ateratzen duten azterketetan?
-Ez, zergatik?
-Txuleta dutelako.

Kale batetik hiru pertsona doaz. Hirurek dute aterkia. Bat potoloa da, bestea fina eta hirugarrena erdibidekoa. Zein bustiko da?

Euskaldun bat eta ingeles bat itsasontzi batean doaz. Ingelesa uretara erortzen da eta oihukatzen du:
-Help! Help!
Euskaldunak erantzuten dio:
- Gelik ez dut, txanpua bai.



DINOSAURIO BAT AMAÑAN? ARAZORIK EZ! DINOSAURIO BAT AMAÑAN? ARAZORIK EZ! DINOSAURIO BAT AMAÑAN? ARAZORIK EZ!



TESTUA ETA ARGAZKIAK: **EKHI BELAR**

Amañan izan gara hango ikasleekin elkarrizketa dibertigarria egiten. Ez galdu euren erantzunak. Hori bai, eskolan dinosaurio bat agertuko balitz, apuntatu eurek sortutako superheroi-taldeen izenak.

Egun batez zure irakaslea izango bazina, zer egingo zenuke?

Samuel: Etxe bat egin.
Sara: Ikasleei lagundu.
Fatu: Ikasleei nahi dutena egiten lagako nieke.
Adam: Ikasi eta liburuak irakurri.
Yorbelis: Ikasleei gauzak egiten lagundu.
Fallou: Ikasleei jolasten utzi.

SAMUEL SIMBA



SARA EL IDRISI



FATU SENE



Zein animalia bihurtzea gustatuko litzaizuke egun batez, eta zergatik?
Samuel: Zaldia.
Sara: Untxia, asko gustatzen zaizkidalako eta nire ahizpak bezala aurreko hortzak kanpoan dituztelako.
Fatu: Txakurra. Egia esan, nik nahiko nuke txakurra eduki.
Adam: Katua, politak direlako.
Yorbelis: Txakurra. Nik bat daukat eta Kira du izena.
Fallou: Hamsterra, oso txikiak direlako.

Eskolako jangelan zuk asmatutako plater bat zerbitzatuko balute, zer izango litzateke?
Samuel: Makarroiak tomatearekin.
Sara: Kroketak, baina barruan gauza osasuntsuekin.
Fatu: Patata tortilla.
Adam: Pizza txanpiekin, atunarekin, olibekin, tomatearekin eta gaztarekin.
Yorbelis: Tekeñoak.
Fallou: Hanburgesa saltsarekin, letxugarekin eta tomatearekin.

Zure gelako ikasle guztiak superheroiak izango bazinate, zein izango litzateke zure supertaldearen izena?
Samuel: Spiderman.
Sara: Amaia.
Fatu: Ruth.
Adam: Zortziak.
Yorbelis: Ambar.
Fallou: Batmann.

Zer egingo zenuke zure gelan dinosaurio bat agertuko balitz??
Samuel: Dinosaurioak handiak badira, leihoak apurtuko dituzte eta armiarma-sarea botako diet eta gero ihes egin.
Sara: Superheroiei deitu eta dinosaurioa hil.
Fatu: Ukitu eta ihes egin.
Adam: Eskolatik ihes egin.
Yorbelis: Leku batean ezkutatuko nintzateke eta dinosaurioa irteten denean alde egingo nuke.
Fallou: Superheroiei deitu, dinosaurioa hil eta ihes egin.

ADAM ELMOUSSARI



YORBELIS CONTRERA



FALLOU KEBE



ALDATZE

Gure eskolako ikasle batek, Saioak, gure laguntza behar du inoiz baino gehiago. “Epidermolisis bullosa” izeneko gaixotasuna du, “piel de mariposa” bezala ezagutzen duguna. Ez da sendatzen baina min gutxitzeko dagoen tratamendua ez du Osakidetzak finantzatzen eta oso garestia da. Horri aurre egin eta Saioari gure elkartasuna erakusteko, LH eta DBHko ikasleek kamisetak buelta emanda jantzi ditugu (Saioak zaurien minak saihesteko erabili behar dituen bezala) eta bakoitzak tximeleta bat egin eta astindu dugu bere omenez.



LA SALLE

LH 2. mailakoak Arotz-Eneako baserria ezagutu eta bertan lo egin zuten eta LH 4koak Aurrehistoriako gizakiak bihurtu ziren egun batez Ekainberriko kobazuloan. 6. mailakoak, aldiz, topera ibili dira: “El rey león” musikala antzeztuz, besarkadak banatuz Eibarko kaleetan, eta Irrisarri Land-en abentura bila.



URKIZU

2. zikloko ikasleak Eureka! Zientzia Museoan izan ginen. Lego Robotika tailerra egin ondoren, basamortuko eta oihan tropikaleko animalia batzuk ikusi eta ukitu genituen. Arratsaldean museoa bisitatu genuen. Egun ederra izan zen!



ARRATEKO ANDRA MARI

Arimen Gaua ospatu genuen urtero bezala urriaren 30ean eskolan. Geletan, kalabaza, mamu, maskarak... egin zituzten. Bestalde, Euskal Herrian jai hau nola ospatzen zuten gogoratu genuen. Eguna girotzeko 6. mailako ikasleek izara zaharrak jantzi eta HHko eta LHko 1. eta 2.ziklokoen jolastordura joan ziren eta beraiekin jolasean ibili ziren.



SAN ANDRES



Aurten ere pozarren ospatu dugu Gaztañerre eguna eskolan. Azaroaren 16an, goizean, gaztainak erre eta jan genituen. Arratsaldean berriz, maila ezberdinetako ikasleak batuko ginen eskulanak egin eta gaztainerre egunaren inguruko transmisio lanak egiteko.

ITURBURU

Azken urteetan berreskuratutako ohitura zahar hau berriz oroitu dugu aurten ere. Kuiak hustu eta itxura beldurgarria eman genien eta Gau Beltzeko ekitaldirako prestatu ginen. Mailaka abesti eta dantza bana taularatu genituen. Beldurgaaaaaaria izan zen...



AMAÑA



Azaroaren 16an Gaztañerre ospatu genuen eskolan. Gaztañak danbolinean egiten ziren bitartean, jolasean ibili ginen, txingak, kontrabandista jolasa, lokots-bilketa... eta ondoren gaztainak jan genituen. Primeran pasatu genuen!



ARIES

martxoak 21
apirilak 20

Hotzak ez zaitu geldiaraziko! Mugitzeko eta jolasteko gogoa izango duzu, baina gogoratu berokia janztea kalera ateratzen zarenean. Energia hori lagunekin partekatzeko aprobetxatu!



TAURUS

apirilak 21
maiatzak 20

Hilabete honetan plan goxoak izango dituzu gustuko: etxean pelikula bat ikustea, txokolate beroa hartzea edo ipuin bat irakurtzea. Batzuetan, planik onena lasai egotea da!



GEMINI

maiatzak 21
ekainak 20

Hitz egiteko eta barre egiteko gogoa izango duzu. Agian lagun berriren bat egingo duzu edo aspaldiko lagun batekin sekretutxo bat partekatuko duzu. Kontu asko izango



CANCER

ekainak 21
uztailak 20

Besteen sentimenduak erraz antzemango dituzu. Lagun bat triste badago, zure konpainia oso lagungarria izango zaio. Besarkada batek egun txarra ere alda dezake!



LEO

uztailak 21
abuztuak 20


Zure sormena eta umore ona nabarmenduko dira. Eskolan edo jolastokian proposatuko duzun ideia batek arrakasta handia izan dezake. Ez izan lotsarik zure talentuak erakusteko!



VIRGO

abuztuak 21
irailak 20

Erronka txiki bati aurre egin beharko diozu, baina pazientziaz eta ahaleginez gainditukо duzu. Ez kezkatu lehenengoan lortzen ez baduzu: saiatzea ere garaipen bat da.



LIBRA

irailak 21
urriak 20

Lagunekin jolasteko eta plan berriak egiteko hilabete aproposa izango da. Agian ez zarete beti ados egongo zer egin aukeratzerakoan, baina denon artean irtenbide dibertigarria aurkituko duzue.



SCORPIO

urriak 21
azaroak 20

Detektibe bihurtuko zara! Gauza txikiei arreta handia jarriko diezu eta misterio bat argitzeko gogoa izango duzu. Agian eskolan edo etxean sekretutxo interesgarriren bat aurkituko duzu.



SAGITARIO

azaroak 21
abenduak 20

Abenturazale izateko gogoa izango duzu. Egun euritsu batek ere ez dizu planak zapuztuko: etxean altxor-bilaketa bat edo joko berri bat antola dezakezu. Irudimena da zure tresnarik onena!



CAPRICORNIUS

abenduak 21
urtarrilak 20

Zure ardurari esker, eskolako lanak oso ondo eramango dituzu. Baina kontuz, ez hartu dena hain serio! Barre egiteko, jolasteko eta noizean behin zorakeriaren bat egiteko garaia ere bada.



AQUARIUS

urtarrilak 21
otsailak 20

Ideia harrigarriak etorriko zaizkizu burura. Agian asmakizun bat sortuko duzu edo lagunekin joko berri bat asmatuko duzu. Ez utzi zure irudimenari hegan egiteari!



PISCIS

otsailak 21
martxoak 20

Musika, marrazkiak eta istorio politak izango dituzu gogoko. Zure irudimenak leku zoragarrietara eramango zaitu, nahiz eta etxeko sofan egon. Sortu, amestu eta gozatu!



Laia Pacheco eta Gabriela Casasola dira hilabete honetako gure protagonistak. Biloba eta amama egunero egoten dira elkarrekin, eta harreman estua dute. Baina, zenbat ezagutzen dute elkar? Ea zer kontatzen diguten!

TESTUA ETA ARGAZKIA: **IRATI ALVAREZ**

Zenbatero egoten zarete elkarrekin?
GABRIELA: Egunero ikusten dut. Goizean, eskolara joateko jaiki behar izaten ditut, amak lanera goiz joan behar duelako.
LAIA: Eta gero, eguerdian, berriro egoten gara elkarrekin, bazkaltzeko.

Zein da gehien gustatzen zaizuen janaria?
GABRIELA: Kroketak! Laiari asko gustatzen zaizkio.
LAIA: Eta pizza!

Nork ematen ditu besarkada gehiago?
LAIA: Nik!
GABRIELA: Bai! Laiak eta Markelek (Laiaren anaiak) ikusten nautenean beti ematen didate besarkada.

Txikitan, zertan jolasten zineten?
LAIA: Monopoly-an!
GABRIELA: Sokasaltoan, kromoekin, patinekin... Garai bateko jolasetan.

Bietatik, nork erabiltzen du gehiago mugikorra?
LAIA: Biek antzera.
GABRIELA: Nik ez dut asko erabiltzen, deitzeko eta mezuak bidaltzeko batez ere.
LAIA: Nik laguntzen diot askotan.

Elkarrekin bidaia bat egingo bazenute, nora joango zinatekete?
GABRIELA: Nik Dubaira joatea aukeratuko nuke.
LAIA: Eta Marina d'Or-era? Hiru urte daramatzagu hara joaten!

Bietatik, nork dauka pazientzia handiagoa?
LAIA: Amamak!

Zein da gehien gustatzen zaizuen filma edo telesaila?
LAIA: Free Willy. Orkak eta izurdeak asko gustatzen zaizkit!
GABRIELA: Laiak itsas biologoa izan nahi duela esaten du.

Laia, eta zer da amamataz gehien gustatzen zaizuna?
LAIA: Kroketak, lasagna, arroza... Gabonetan, gainera, denetarik prestatzen du, eta oso-oso goxoa!

FRUTA ETA JOGURT EDALONTZIAK



OSAGAIAK:

- 2 jogurt natural edo greziarra
- Platano bat
- 4 marrubi
- Ahabi eskukada bat
- 2 gaileta
- Ezti pixka bat (nahi izanez gero)








NOLA EGIN:

1. Fruta prestatu: garbitu marrubiak eta ahabiak. Moztu platanoa eta marrubiak zati txikitan (eskatu heldu bati laguntza).
2. Gailetak birrindu: Sartu gailetak poltsa batean eta txikitu eskuekin.
3. Edalontziak bete: Jarri jogurt geruza bat edalontzi bakoitzaren hondoan.
4. Fruta gehitu: Jarri platano, marrubi eta ahabi zati batzuk jogurtaren gainean.
5. Geruzak egin: Errepikatu jogurta eta fruta bukatu arte.
6. Azken ukitua: Bota gaileta birrinduak gainetik eta, nahi baduzu, ezti pixka bat.

LABIRINTOA


Laberintoa
26
4×6=
32
24
57
35
8-23=
12
112
63+62=125
126
10
13
24
9
13
8
6
54
9×6=

DOMINOA



GURUTZEGRAMA



LE-HIAKE-TA

PILOTAREN BILA!

Kaixo, lagunok! Honako txakurtxo honek zuen laguntza behar du! Lagunduko al diozue pilotarengana iristen? Parte hartu lehiaketan. NOLA? Gure bulegora ekarriz (Urkizu 11) edo email-ez bildaliz: elkartea@etakitto.eus

SARIAK ZUEN ZAIN DAUDE!

LABIRINTOA



Aurreko aleko irabazlea



Aupa **NAIKE** txapeldun! Bikain asmatu zenuen aurreko aleko denborapasa eta zuretzako liburua eta ...eta kitto!-ren bisera. ZORIONAK!!!

6 urte

Asko maite dut neure burua

Geure gorputzari zuzentzen diogun begirada aldatzeko gonbita da liburu hau. Hari maitasunez begiratzen ikas genezake. Eta norbere buruari maitasunez begiratzen jakitea superboterea da.



8 urte

Etxe bitan bizi naiz

Sara, liburu honetako pertsonaia, etxe bitan bizi da orain. Gehienetan amarekin eta batzuetan aitarekin. Bietan dauka, ordea, bere tokia, bietan bere txokoa, eta asko maite dute bietan. Lehen, etxe bakar batean bizi zen, aita eta ama ere etxe bakar batean bizi zirelako. Baina gurasoak banandu zirenetik aita etxe batean bizi da eta ama bestean; Sara, berriz, bietan.



10 urte

Nire bizitza eskolan

Kaixo! Nire izena Wiska da eta...niminoa naiz! Nire familia Wisklingeko Basoaren beste muturrera joan da bizitzera, eta ni ere haiekin. Onena da nire logela apaintzen utzi didatela. Pentsa, eskolako uniformea ere neuk nahi dudan bezala apaindu dut! Nahiago nuke nire lagunik onena, Ilargi, hemen balegonirekin. Dena den, eskolan bi lagun berri egin ditut: Kleo eta Udabe. Oso guaiak dira biak, eta izugarri gustatzen zaie moda, niri bezala.



BITXIKERIAK

Jirafaren mihia 45 cm luze izan daiteke!

Pinguino batzuek harriak oparitzen dizkiete bikotekideei!

Tximeletek oinekin dastatzen dute janaria!

SUPERMERKATUKO ATE MISTERIOTSUA

EGILEA: **ARRATEKO ANDRA MARI IKASTETXEKO IKASLEAK**

Ane eta Patxi anai arrebak ziren. Patxi 12 urteko mutikoa zen, ile horia eta begi marroiak zituen. Patxi oso beldurtia zen armadura gabeko zaldun bat bezala. Ane berriz, 8 urteko neskatoa zen eta ile marroia, begi urdinak eta Wonder Woman bezain ausarta zen.

Larunbat goiz batez, Ane, Patxi, ama eta aita supermerkatura joan ziren erosketa egitera. Aitak erosketa zerrenda atera zuen. Eta Aneri eta Patxiri esan zien:

-Joan zaitezte pasta hartzera bihar bazkaltzeko.

Ane eta Patxi pasta zegoen lekura joan ziren. Eta bat-batean, apalategi baten atzean ate txiki misteriotsu bat ikusi zuten. Atearen ondoan, kolore gorriko botoi bat zegoen, "Lacasitos" erraldoi bat zirudien!

-Begira, Patxi! Zer ote dago ate horren atzean?-galdetu zuen Anek, kuriositate haundiz.

-Ez dakit, baina jakin nahi dut- erantzun zuen Patxik armadura edukiko balu bezala.

Orduan, Anek botoi gorria zapaldu zuen, eta atea ireki zen. Barruan, argi disdiratsu bat zegoen bi aulkiren gainean eta bi anai-arrebak eseri zirenean, pum!! Atea itxi zen!

Beste mundu batean zeuden! Mundu hartan, dena txokolatezkoa zen: zuhaitzak, etxeak, errepideak, autoak, ibaia...Anek aho zabalik begiratu zuen ingurura.

-A zer nolako mundua!-esan zuen Anek pozik.


Eta pum! Atea desagertu zen.

-Eta orain, nola itzuliko gara etxera?-esan zuen Patxik negarrez.

Halako batean, berriro beste argi disdiratsu bat ikusi zuten eta argiaren azpian beren gurasoak zeuden bi aulkietan eserita, usoak magoaren kapelan agertzen diren modura!

-Ama, aita! Zer egiten duzue hemen!- esan zuten bi anai-arrebak batera.

-Botoi gorri bat ikusi dugu eta aitak zapaldu ondoren, ona heldu gara- esan zuen amak.



Bat-batean, musika entzun zuten, "Willy Wonka, Willy Wonka hemen nago..." esaten zuen abestiak...eta txokolatezko zuhaitz baten artetik, gizon arraro bat agertu zen. Txapel altua bat, traje koloretsu bat, makila luzea eta irribarre alaia zuen.

-Kaixo, familia! Willy Wonka naiz! Ongi etorri nire txokolatezko mundura!-esan zuen.

Familia harrituta geratu zen.

-Nire munduan dena gozo-gozoa da, eta nahi baduzue, hemen geratu zaitezkete bizitzen!-proposatu zuen Willy Wonkak.

Familia osoa pozik jarri zen eta bertan geratuko zirela esan zuten denek batera.

Zu bai margolari

Zu bai



Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari

Zu bai margolari